

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Eskoriatzan 'solidaridade
co pobo galego' /8**

AISIALDIA

**Sukaldaritza ikastaroa
egin dute 17 lagunek /9**

LEINTZ GATZAGA

**Unai eta Beloki nagusi
Pilota Txapelketan /10**



Galartzako

Santa Luzia

eliza inauguratuko dute, domekan

ASTEKO GAIA: TOKIKO AGENDA 21/5 • KIROLA: PILOTA TXAPELKETAKO FINALA/6

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 14
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 15
FRAILE, J. Herriko plaza 10. 943 79 85 83

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK
SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

AZATZAN
Domeketan: 11:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

OHARRAK

DONOSTIAKO ERESKI ABESBATZA
Bihar, zapatua, Donostiako Ereski Abesbatzak kontzertua eskainiko du, Aretxabaleto eliza nagusian, 20:00etan.

ATXABALTARROK TALDEAREN ITXIALDIA
Gaur gauetik bihar eguerdira arte, hau da, hilaren 13tik 14ra bitartean, Atxabaltarrok taldekoek itxialdia egingo dute udaletxean.

MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUA
Abenduaren 16tik 20ra bitartean, Leizarra Musika Eskolako ikasleek hainbat kontzertu eskainiko dituzte, Leizarra Musika Eskolan, 16:00etan. Tartean, abenduaren 17an, Gabon kontzertua egingo dute, Kurtzebarri Eskolan.

BIDEZKO MERKATARITZAKO AZOKA
Abenduaren 21ean (zapatua), Hiruatx elkarteak Bidezko Merkataritzako Azoka jarriko du udaletxe zaharrean.

IDOIA ELEXPURAREN OLIOAK
Idoia Elexpuru margolari aretxabaletarra ikusgai jarri ditu zenbait olio Bergarako Nahikari tabernan. Idoiak egindako lanak abendu bukaera arte izango dira ikusgai.

LORAMENDIREN AGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI
2003. urteko Seaskako egutegiak salgai daude Loramendi Elkarteko egoitzan. Pasa zaitetz handik, 16:00etatik aurrera.

LAN ESKAINTZA
Loramendi Euskara Elkarteak koordinazio lanak egingo dituen langilea kontratatu gura du. Lanpostuaren oinarriak *Goienkaria*-n topatuko dituzu, *Sailkatuak* sailean.

ORAINDELA 6URTEARETXABALETAN

UDAK 50. urteurreneko ekitaldiak egin zituzten

1996an, UDAk 50 urte bete zituen. Urteurren hura ospatzeko hainbat ekitaldi gertatu zituzten. Eta ekitaldi garrantzitsuenak 1996ko abenduaren 15ean egin zituzten; izan ere, egun hartan, besteak beste, *UDA, 50 urte* izeneko liburua aurkeztu zuten. Liburu horrek UDAREN historia batzen du.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Perratzaillia”

Ferratzailea.
— *Osintxuko perratzailliakin egon naiz.*



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Pilar Zubizarreta
15ean, 45 urte. Zorionak eta muxu bat, alabaren partetik.



ARETXABALETA
Markel Bengoa
16an. Zorionak, bioi! Aitaxoren partetik, muxu handi bat.



ARETXABALETA
Aritz Fernández
18an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, aitaren eta amaren partetik.



ARETXABALETA
Maitane D. Sillero
7an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ARETXABALETA
Felis Beltran de H.
13an. Muxu handi bat, Alaitzen, Eñauten, Manexen eta Mirariren partetik.



ARETXABALETA
Naia Calvo
13an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ESKORIATZA
Jon Iglesias
13an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko-en partetik.



ARETXABALETA
Mirari Ayastuy
12an. Muxu handi bat. Josu, Amaia, Aitor eta beste guztiak.



ESKORIATZA
Iñaki Salaberria
15ean, 6 urte. Zorionak, gurasoen eta anaia Anttonen partetik.



ARETXABALETA
Jon eta Gorka Gonzalo
Zorionak eta muxu handi handi bat etxeko guzti-en partetik.

LIBURUTEGIKOTXOKOA

‘Hiztegi jolastia’

Hiztegi modura antolatuta dagoen arren, poesia liburua da honako liburu hau. Letra bakoitzeko poema edo jolas bana eta marrazki bana erakusten digu Joxean Ormazabalek. Poema laburrak dira, eta letren musikal-tasunarekin, errepikapenarekin eta onomatopeien laguntzarekin eginak daude, gehienbat.

Lehenengo irakurleei zuzendutako liburua duzue honako hau. Marrazkien egilea Elena Odriozola da, eta marrazki oso samurrak dira, bere ohiko estiloan. Gabonetako oporraldian irakurtzeko liburu gomendagarria da Joxean Ormazabalek idatzitako *Hiztegi jolastia*.





HIZTEGI JOLASTIA

J. Ormazabal
Elkar, 2002
39 orrialde


JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak


MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05




ATREBENTZIAEZPADA/ Eurue ibiltten ohittu zara? Zelakue izen da zeuretako diru kanbixu hori?



SANTIAGO CARRASCO
langillie



ANE AGIRREZABALAGA
ikaslie



J. ANJEL ETXEBARRIARTEUN
langillie



NEREA GARCÍA
langillie



MANUEL ABRIL
jubilaue



CONCHI MIGUEL
langillie

Ez. Nahastu egitten naz. Horregaittik, ondiokan kontu danak pezetatan egitten dittut. Hala be, ikesten be ez naz askorik ahaleginddu, baiñe kanbixue txarra izen da neuretako.

Bai, ohittu biherko. Ez da samurre izen pezetie ahazketie, baiñe bueno... Ondiokan kontu batzuk pezetatan be egitten dittut, baiñe, jeneralien, euruekin nahiko ondo nabil.


Bai, ohittu naz, eta nahiko ondo nabil. Kanbixue normala izen da. Neuk eurotan egitten dittut kalkuluek. Neure ustez, pezetatan daguzen preziuek desagertu egin biherko litzakez.

Bueno, bai eta ez. Ondiokan pezetatan pentsetan dot, eta hola hobeto ibiltten naz. Hala be, kantidade txikiek dienien, dagoeneko pezetie ahastu eta euruekin ondo konponketan naz.

Ez, ez naiz ohittu, eta, gaiñera, euruekin nahiko txar-to konponketan naz ondiokan be. Lehenago, pezetiaz, hobeto gebitzen oin baiño. Hala be, ez dago erremediorik, eta ikesi egin biher!

Bai, ondo defendiduten naz euruekin. Hasieran, ueste neuen sekule ez nitzela diru barrira ohittuko, baiñe ondo nabil. Honezkeru preziuek eurotan bakarrik jarri biherko leukie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK INDARKERIA ETA FUTBOLA Badakigu futbolak askotan zaletu askori bihotza bero-bero jartzen diela. Hala ere, horrek ez du justifikatzen Aretxabaleta futbol taldeko infantiletan delegatu batek izandako jarrera. Txistuak ekintza horregatik, txistuak futboleant ari diren neska-mutilei eredu txarra emategatik, txistuak, azken baten, kiroletako indarkeriari. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

ASTEAN BEHIN /05

KIROLAK /06

Galartzako eliza

Zaharberritze lanak egin ostean, domekan, hilak 15, Galartzako Santa Luzia eliza inauguratuko dute.

'Agenda 21'-eko ikerlana

Udalak udalerriko ingurumenaren gaineko ikerlana egin du. Txosten hori ikusgai dago udaletxean.

Pilota Txapelketa

Bihar, hilak 14, kirol etxeko Pilota Txapelketako finala jokatu dute Iturrigorri pilotalekuan.

ASTEKODATUA

8

UDAL LANGILEK HARTU DUTE PARTE INGURUMEN AZTERKETAN

Agenda 21 akordioaren barruan, gure udalerrian jasagarritasuna lortzeko ikerlana egin du Udalak. Ingurune SL enpresak egin du, eta, besteak beste, Udaleko zortzi langilek hartu dute parte.

BESTEKEESANA


“Nire ustez, arbitroa UDaren kontra ari zen arbitratzen, eta besoak altxatuta esan nion, bai alde batekoak bai besteak umeak zirela, eta inpartzial arbitratzeko. Hori protesta moduan hartu, eta kaleratu egin ninduen.

Atsedendian, aldagelako atea gogor itxi, eta kanpora irten nintzen. Lotsagabea zela esan nion, eta “energumeno” edo antzekoren bat ere bai. Arbitroak atea zabaldu, nigana etorri, eta bultzatu egin ninduen, eta nik hari. Aldagela barrura sartu, eta elkarri heldu genion, eta elkarri jotzen saiatu. Hark dio jo egin niola; nik ez dut horren kontzientziarik.

Bigarren zatia bukatu, eta barkamena eskatu nion, eta hura hor zehar ari da zabaltzen ez niola barkamenik eskatu.

AURELIANO CALZÓN
GOITB/2002-12-04

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Zapatuan, denok Iruñera

Euskarak jasaten dituen erasoen aurrean, Oinarriak taldeak manifestazioa antolatu du abenduaren 14an arratsaldeko 17:30etan Iruñean. Denok dakigu Nafarroa jasaten ari den erasoaldia latza dela, baina ez da bakarra, euskaldun guztiok garelako kaltetuak. Egoera hau ikusita, euskaldun guztiok Iruñean egon behar dugu eta denon artean egoera honi aurrea erakutsi beharra dago. Bada garaia euskaltzaleok kalera atera eta dagozkigun eskubideen alde oihu egiteko. Agerraldi honen ondoren ere, badaukagu non lana egin eta zeri jaarrantu. Beraz, Iruñean ez da amaitzen euskararen aldeko borroka, euskarak iraungo badu egunez egun lan egin beharra dago, erasoak etengabeak direlako.

Euskararen aldeko lanak guztiok behar gaitu, hemen euskaraz ez dakiena ere ongi hartua baita. Urte luzeetan

zehar lan ugari egin da euskaldunon hizkuntza eskubideak betetzeko eskatuz, eta baita gauza positiboak lortu ere: ikastolak, herri aldizkariak, euskara elkarteak, Kontseilua... Azken urte honetan batez ere, proiektu

“Denok dakigu Nafarroa jasaten ari den erasoaldia latza dela, baina ez da bakarra, euskaldun guztiok garelako kaltetuak”

hauei guztiei bideak ixteko saiakera asko egiten ari dira euskararen aurka ageri diren pertsonak. Proiektu hauek guztiak ezberdinak dira, baina badute zerbait komunean: euskarak batzen ditu, euskara normalizatzea da helburuetariko bat.

Normalizazioaren bidean, beraz, apustu sendoak egin dira, eta oraindik asko eta asko egiteko daude, tartean herrietako plan estrategikoak daudelarik.

Euskararen aurkako erasoen aurrean, zera esan behar dugu: aski da!, euskara ofiziala Euskal Herrian!, denok Iruñera.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale



ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Gabon usaina

Santa Luzia Eguna gaur. Hori kontuan hartuta, gure herriko eliza bat, Galartzako Santa Luzia eliza, domekan inauguratuko dute. Aitor Antxia Leturiak fin-fin eskuorri bat atera du, elizaren historia kontatzen duena. Eskerrak zuri, Aitor, jarraitu horrelako lan interesgarriak egiten.

Egun hauetan kultur ekintzak izaten dira nagusi. Zapatuan, Donostiako Ereski Abesbatza izango da gurean. Ze ondo! Ni, behintzat, banoa kantuak entzutera.

Eta ahaztu aurretik, ze polito apaindu dituzten dendariek eskaparateak, ezta? Guztiei eskerrona luzatu gura diet, herriari bizitasuna emategatik. Eskerrik asko, zuei ere.

Dagoeneko Gabon usaina hartzen ari naiz eta lehenbailehen Olenzterori idatzi behar diot.

INAUGURAZIO EKITALDIA/ Galartzako elizaren gaineko historia batu du Aitor Antxiak

Galartza auzoko Santa Luzia eliza inauguratuko dute oraingo domekan

AMAGOIA LASAGABASTER


Oraingo domekan, hilak 15, Galartza auzoko Santa Luzia eliza inauguratuko dute. Aspaldi amaitu zituzten eliza horretan egin beharreko zaharberritze lan guztiak. Hala ere, domekan ospatuko duten Santa Luzia Egunari itxaron diote inaugurazio ekitaldia egiteko.

Maiatzean hasi zituzten Galartzako Santa Luzia elizako zaharberritze lanak, eta uztailean amaitu. Tarte horretan, barruko aldea konpondu eta elizpea itxi egin dute, burdinazko ate bi jarrita. Orain, lan horiek guztiak bukatuta, Santa Luzia eliza inauguratzeko ekitaldia egingo dute.

LANAK

Galartzako Santa Luzia elizan barruko aldea txukundu dute. Horretarako, elektrizitate sarea egokitu eta hormak berdindu eta margotu dituzte. Horrez gain, horma horietan egoera onean zegoen egurra eta harlandua kanporatu egin dute. Hala, auzotarren esanetan, Santa Luzia elizaren barruko aldea dotore gelditu da.

Bestalde, elizaren kanpoko aldean, elizpean, hain justu, egurra bistaratzeaz gain, burdinazko ate bi jarri dituzte. Itxitura horren helburu da elizpea garbi edukitzea; izan ere, joan den aspaldian, gazte batzuek Galartzako elizaren elizpera joan, eta dena zikin-zikin uzten zuten. Lanen arduradun Jose Olabereren esanetan, ez zuen merezi dena zaharberritu



AMAGOIA LASAGABASTER

Santa Luzia eliza gainean aurkitu dituzten idazki zaharrenak XVI. mendeak dira.

ostean elizpea zabalik uztea, gazte horiek berriro zikin zezaten; hortaz, Udalaren baimenarekin ixteko erabakia hartu zuten.

Zaharberritze lanak 33.450,77 euro kostatu dira. Horietatik, ia 22.000 euro Gotzaingoak eta Udalak ordaindu ditu. Gainerako zorrak ordaintzeko, berriz, hiru urtean ordaintzeko mailégua eskatu dute.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Aitor Antxia Leturia irakasleak Galartzako elizaren historia batzen duen ikerlana egin du. Lantxo hori domekan, inaugurazio egunean, banatuko diete elizara hurreratzen diren guztiei. Inaugurazio ekitaldia 12:30ean hasiko da, mezarekin. Meza ostean, luntxa izango da, gura duenak mokadutxo hartzeko.

LABUR

Atxabaltarrok taldekoek gaur hasi dute itxialdia

Atxabaltarrok taldeko kideek itxialdia hasi dute gaur, egubakoitza, Aretxabaletako udaletxean. Euskal Herriaren eskubideen aldeko itxialdia lelopean, etzira arte izango dira itxialdian. Hala, gaur gauean, besteak beste, afari-tertulia egingo dute.

2003. urtean Santa Ageda mutil izango direnei deialdia

Udaleko Kultura Sailak dei egin die datorren urtean Santa Ageda batzen ibili behar diren mutilei batzarra egiteko. Batzarraren helburua da Santa Ageda kantua eta dantza erakusteko ikastaroak zehaztea. Batzarra abenduaren 17an egingo dute, martitzena, udaletxean, 17:00etan.

Pintadak Urbaltz tabernan, Muru Alden eta batzokian

Joan den astean, hainbat pintada agertu ziren Urbaltz tabernan, Muru Alde elkartearen eta batzokian. Pintadak Euskal Herriaren aurkakoak eta Espainiako Estatuaren aldekoak ziren. Batzokian, esaterako, zera jarri zuten: *Os lla-man españoles pero eso es un orgullo que nunca tendreis.*

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia


Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKLU

URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Gemes edertze aretoa

- ✓ Depilazio elektrikoa
- ✓ Makillaje iraunkorra
- ✓ Aurpegiko azalaren garbiketa

Durana 40 ARETXABALETA Tel.: 943 79 99 18

INGURUMENA/ Aholkularitza eta Ikerketa Ingurune SL enpresak egin du ikerlana

'Tokiko Agenda 21'-en gaineko ikerlana egin du Udalak

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaletako Udalak maiztean onartu zuen Aalborgheko Gutuna sinatzea. Horren ondorioz, jasangarritasunean oinarritzen den **Tokiko Agenda 21** akordioan sartzeko pausok ematen hasi zen. Eta horri jarraituz, orain, ingurumen azterketa egin berri du.

Tokiko garapen orekatua du helburu *Agenda 21* akordioak. Eta garapen horretan jasangarritasunak zeresan handia dauka. Baina zer da jasangarritasuna?

JASANGARRITASUNA

Gure ingurumenak behar bezala funtziona dezan, hainbat irizpideren arteko oreka beharrezkoa da. Kontua da ingurumenak beharrezko baliabideak ematen dizkigula; hortaz, esaterako, ekonomiak eta giza jarduerak irizpide jasangarriak erabiltzen badituzte, egungo belaunaldien beharrik asetzearaino, etorkizuneko belaunaldien gaitasuna eta garapena ziurtatuko ditu. Hori dela eta, jasangarritasuna lortzeko lanek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, baita gure udale-

rrian ere. Aretxabaletako Udalaren helburua da, azken baten, udalerriko ingurumen, ekonomia eta gizarte politika jasangarritasun irizpideekin integratzea. Eta horretarako lehenengo pausok eman dituzte dagoeneko; izan ere, Udalak joan den astean, hilaren 4an, aurkeztu zuen udalerriko ingurumenaren gainean egindako ikerlana.

“Jasangarritasuna lortzeko lanek garrantzi handia dute, baita gure udalerrian ere”

“Xabier Etxebarrietaren esanetan, ikerlanaren emaitzak oso onak izan dira”

EGOERA ONA UDALERRIAN

Aretxabaletaren gaineko ingurumen txostena Aholkularitza eta Ikerketa Ingurune SL enpresak egin du. Enpresa horrek udalerrira hamaika aspektutan banatu, eta bakoitzean zer-nolako egoera daukagun ikertu du. Energia, kutsadura atmosferikoa, ura, garraioa... eta horrelako gaietan herriak dituen gabeziak eta hutsuneak jarri ditu agerian. Ingurumen zinegotzi Xabier Etxebarrietaren esanetan, ikerlanaren emaitzak oso onak izan dira: “Oro har, herrian, gaur egun, ez daukagu arazo larririk. Nik esango nuke jasangarritasuna lortzeko bidean gaudela. Gainera, aurkitu dituzten hutsune txikiei konponbidea emateko lanean ari da dagoeneko Udala.

Ikerlan horretako emaitzak dagoeneko ikusgai daude udal txostean. Hala, inork txostena irakurtzeko interesa badu, Udaleko zenbait langile gertu daude beharrezko azalpenak emateko. Era berean, *Agenda 21* akordioa bultzatzeko, foru edo lantaldea sortu gura dute. Eta ahalik eta jende gehien erakarri eta taldean parte hartzera bultzatu gura dute.

TXUTXUMUTXUA



Kurtzebarrikoek Udazken Festa egin zuten

Abenduaren 5ean egin zuen hotzari, euriari, ekaitzari eta kazkabarrari aurre eginez ospatu zuten Kurtzebarri Eskolakoek Udazken Festa. Iturri gorri pilotalekuko aterpean batu ziren eskolako irakasleak, umeak eta gurasoak. Han, giroa lehenbailehen berotzeko, askaria egin zuten. Danbolinean erretako gaztainak eta lapikoan egositako buzkantzak izan zituzten jateko; edateko, berriz, sagar goxoekin egindako sagardoa banatu zuten. Gero, ezarriak majo berotutakoan, besteak beste, Irrintzi Lehiaketa eta bertso kantaldia egin zituzten. /A. L.

- Aitzorrotz** elektronikak
- Alboka** gazte moda
- Ana's** jantzi denda
- Angelines** autozerbitzua
- Aretxabaleta** iturgintza
- Asensio** jantzi denda
- Begiondo** optika
- Calderon Soledad** autozerbitz.
- Errasti** kioskoa
- Errekabarren** fruta denda
- Etxabe** harategia
- Farma bizi** parafarmazia
- Gantxegi** harategia
- Gemes** edertze aretoa
- Gertu** janari prestatuak
- Haurrak** umeen moda
- Ibarra** estankoa
- Iber** loteria
- Imanol** janari denda
- Iriarte** umeen denda
- Irudi** ileapaindegia
- Jauregi** okindegia
- Jon** harategia
- Josu** harategia
- Kixkur** ileapaindegia
- L-10** ileapaindegia
- La Brasileña** akeita etxea
- Lasai** masajek
- Leibar** arraindegia
- Leintz** mertzeria
- Leniz** liburudenda
- Mari Karmen** oinetakoak
- Maritxu** mertzeria
- Martin** erlojudenda
- Miren Zuriñe** bitxitegia
- Nerian** loradenda
- Txilarra** dietetika
- Xume** oihal denda
- Zainduz** osasuna/fitnessa
- Zare** artegintza
- Zubia** oinetakoak



Errege Eguneko loteria opari egiten dugu.
Zer egingo duzu tokatuz gero?

PILOTA TXAPELKETA

Pilota Txapelketako finala jokatuko dute bihar, zapatua, Iturrigorrin

Pilota Txapelketako finala Arrasateko bikote bik jokatuko dute

AMAGOIA LASAGABASTER

Azkenean ere, heldu da kirol etxeak antolatutako Pilota Txapelketaren egun handia. Bihar, hilak 14, txapelketako finala jokatuko dute. Aurten, txapelketan arrasatearrak izan dira nagusi. Hala, azken partiduan Arrasateko bikote bi arituko dira aurrez aurre.

Arrasatearrek jokatuko dute kirol etxeak antolatutako Pilota Txapelketako finala. Bihar, zapatua, jokatuko duten norgehiagokan Isturitzek eta Irasuegik Korteta eta Iturbe izango dituzte aurkari. Hirugarren edo laugarren postua lortzeko partiduan, bestalde, aretxabaletarrak arituko dira nor baino nor gehiago: hain zuzen, Sarasua eta Muxika Carrilloren eta Unanueren aurka.

MAILA HANDIKO TXAPELKETA

Laugarren aldia izan da kirol etxeak Pilota Txapelketa antolatu duela. Orain arte txapelketa bi egin izan dituzte: bata, pilota bigunarekin, eta bestea, erdi mailako pilotarekin. Aurten, baina, txapelketan maila handiko pilo-



Pilota Txapelketan ibili diren jokalariek oso maila ona erakutsi dute.

ASIER MUXIKA

tariek eman dute izena, eta guztiek erdi mailako pilotarekin jokatzea erabaki zuten. Horren ondorioz, txapelketa bakarria antolatu zuten. Denera, orain arte, hamar bikote aritu dira zein baino zein gehiago.

SARIAK

Bihar, zapatua, izango da finala, Iturrigorri pilotalekuan, goizeko hamaiketan. Partiduaren ondoren, irabazleei trofeoak eta kirol materiala erosteko bonoak banatuko dizkiete.

XAKEA

Euskal B Ligako lehenengo partiduak galdu zituzten aretxabaletarrek zapatuan

Joan den zapatuan, hilak 7, Arlutz Xake Taldekoek Euskal B Ligako lehenengo partiduak galdu zituzten. Donostiako Gross taldearen aurka jokatutako lau partiduetatik Fran Migelek bakarrik irabazi zuen. Emaizta 3-1 izan zen.

Oraingo asteburuan, berriz, ez dute partidarik jokatuko. Hurrengo norgehiagokak urtarrilean izango dira.

FUTBOLA

UDAKo preferente taldeak eta Touring-ek hiruna egin zuten aurreko astean

UDAKo preferente taldeak partidu ona jokatu zuten Touring-en aurka joan den domekan. Edozelan ere, eta 2-0 irabazten joan eta gero, azkenean, berdinketarekin konformatu behar izan zuten Bittor Muxikaren mutilek (3-3). Bihar, zapatua, Debako Amaikak B taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. UDA eta Amaikak B taldeak pareko daude sailkapenean.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Aretxab./Almen-Ordizia
Gazteen Euskal Liga.
Zapatua. 17:30. Pasaia.
UDA/Alm.-Bergara
Bigarren mailako gazteak.
Zapatua. 15:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Beharzana
Nagusiak.
Zapatua.
Aretxab.-Tolosa
Seniorrak.
Zapatua.

EMAITZAK

FUTBOLA


UDA 3 Touring 3
Preferentea.
Hernani 2 UDA 0
Gazteen Euskal Liga.
UDA 5 Amaikak bat 1
Bigarren mailako erregionala.
Gazteak 0 UDA/Alm. (b) 2
UDA/Alm. (c) Urki 1
Bigarren mailako gazteak.
UDA/Alm. 3 Elgoibar 0
Lehenengo mailako kadeteak.
Eibar 0 UDA/Alm. 1
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Altzatarrak. 10 Aretxab. 22
Bigarren mailako gazteak.

*gainontzeko mailetan ez zuten partidurik jokatu.

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■ IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

PARAFARMAZIAK:

■ FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

YOGA:

■ SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia
Lezama komertzial zentrua
eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

MASAJEAK:

■ FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia
Basabe indusialdea, Pab D z/g
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■ LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista
Osteopatia kraneala: estrukturala eta funtzionala, lotura muskularrak
Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34
■ EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA
Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

ESKORIATZA

FARMAZIA:

■ BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia,
formula magistralak
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

■ ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

■ AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

İNİGO BERRIDI

İKASLEA/ESKOZIA

“Ingelesa praktikatuko
nuelakoan nengoen, baina
hainbeste euskaldunekin...”

AINTZANE GARDOKI

O rain dela urtebete pasatxo joan zen İnigo Eskoziara, eta Edinburgon bizi da. “Ingeniaritzako master bat egitera etorri nintzen Napier Unibertsitatara. Horrez gain, beste esperientzia bat bizi gura nuen, eta ingelesa praktikatuko nuelakoan ere etorri nintzen. Baina, egia esan, hemen ez dago aukera handirik; izan ere, hainbeste euskaldun dago hemen!”

Neskalagunarekin, beste bi euskaldunekin eta irlandar batekin bizi da Edinburgoko erdialdean: “Dena dela, gutxitan egoten gara bostok bakarrik etxean. Beti jende pilo egoten da gure etxean”.

Edinburgoko bizimodu berrira ohitzea ez zen batere gaitza izan İnigorendako: “Guztiz kontrakoa; hiri txikia da Edinburgo, baina, aldi berean, denetarik dago. Hemen ez dago aspertzirik”. Edozelan ere, arazo txikiren bat izan zuen jatorduetan: “Gaizki jaten dute hemen. Janari lasterrari ohitzea kostatu egiten

zait; eta, horren ondorioz, sukaldari trebe bilakatu naiz”, diosku harro İnigok.

Ikasketa-proiektua egiten ari da, eta lan ere egiten du, jate-txe italiar baten, hain justu.


“Gaizki jaten dute
hemen; eta, horren
ondorioz,
sukaldari trebe
bilakatu naiz”

İnigok ez daki oso ondo noiz itzuli den Aretxabaletara, baina ez harritu laster herrian berekin tril egiten baduzue ere: “Gabonak direla-eta, datorren astean, etxera joango naiz egun batzuk pasatzera”.

Lehen esan bezala, gustura bizi da İnigo Eskozian; edozelan ere, Aretxabaleta ere badu gogoan: “Batez ere, arrasatear batzuk Aretxabaleta dela eta ez dela adarra jotzen hasten direnean akordatzen naiz asko”.



HURRETIK



Agurtzane
Urizar

Ibarra jatetxekue

Agurtzane Arrazolan (Bizkaia) jaixotakue da, baiñe 12 urtekin Mondraguera fan zan bizi izetera. Oin, Ibarra jatetxeko jabie da. Argazkixen İnigo sukaldarixakin dago da Agurtzane.

Ze egitten dau bizkaitar batek Aretxabaletan?

Horixe bera preguntetan dutzet neure buruari. Beti izan dot gustoko ostalaritza, eta Mondraguen taberna bat euki arren, jatetxie zabalketako gogue neuken. Eta holaxe egin dot, Aretxabaletan.

Noix zabaldu zeuen Ibarra jatetxie? Julixuen.

Eta zergaittik ez dutzue kanbixau lehen euken izena jatetxiari?

Ibarra izena gustetan jatelako.

Ostalarixen lana gogorra da?

Bai.

Zeintzuk die alde txarrak?

Lan haundixe egin biher dala, eta, gainera, bestiek denpora librie daukienien.

Eta alde onak?

Lan atsegiña dala; hamen ez da zortzi orduen tornilluek sartzen ibilli biher.

Sukaldien be ibiltzen zara: ze gurago dozu, jan ala sukaldien ibilli?

Sukaldien ibilli.

Gabonetarako menu bat?

Hasteko, entremes batzuk, gero, solomillo eder bat, eta buketakako, tarta bariak. Dana, arda baltakin.

Fango zitzake Galiziako itsasue garbiketari?

Bai.

Olentzerori ze eskatu dutzezu?

Ondiokan ezer be; badakit neure Olentzero nahiko pobre dabillela eta... Baiñe bueno, iguel, opor batzuk eskatuko dutzet.

2002. urtie zelan fan da?

Gogorra izen da.

2003. urtiari ze eskaketan dutzezu?

Negoziue hobeto fan daixela.

AMAGOIA LASAGABASTER

NIREBIDAIAHURA / Martxi Pérez

Holanda / 1993an, abuztuan

Martxi beste hiru lagunekin batera egin zuen Holandara bidaia: “Errusiara joatekoak ginen, baina herrialde hartan arazoren bat izan zen, eta bidaia agentziak Holanda itsasontziz ezagutzeko aukera eman zigun azkeneko orduan. Lehenik, auto busa hartu genuen. Euskaldunetz gain, Espainiako Estatu ko jende ugari gindoazen. Autobuseko jendea itsasontzi bitan banatu behar zen, eta, kasualitatez, euskaldun guztiok elkarrekin joatea tokatu zitzaigun. XIX. mendeko egurrezko itsasontzi baten pasatu genituen oporrak”, esan digu Martxi.

Amsterdamera heldu bezain laster, itsasontzia hartu zuten. Pit kapitainak eta gaztelaniaz apur bat zekien haren ilobak osatzen zuten tripulazioa. Kapitainak ordu pare batez berba egin zien bidaiariei, eta norberaren eginbeharrak ere banatu zizkien: “Itsasoan ibiltzea ez da nolana hiko lana. Zeregin asko dago: oihala jaso, jaitsi, sokak batu... Erosketak ere egiten genituen, baita jatorduak prestatu ere”. 17 lagun ziren itsasontzian. Holandako kostaldea ezagutzeko oso modu polita eta interesgarria dela esan digu: “Sei-zazpi ordu egiten genituen nabigatzen. Gauerako portura sartzen ginen: portuak ikusgarriak ziren. Holanda ei da pertsonako itsasontzi kopuru handien duen herrialdea. Han mundu guztiak dauka itsasontzia, eta portuak horretarako prestatuta daude. Zerbitzu publikoak, jatetxeak zinemak, tabernak... eta, gainera, izugarritzko bizi-tza dago portuetan”. Eguraldi kaskarra izan zuten, baina, Martxiaren ustez, edonori gomendatzeko moduko bidaia da duela ia 10 urte egin zuena. Bizikletaren inguruan gizarte osoa zelan antolatuta dagoen ikusteak ere eman zion atentzioa: “Edadetuak, gazteak, zaharrak, umeak, punkak edo gorbatahunak... Berdin dio, mundu guztia dabil bizikletan!”.



“Zeregin asko
dago itsasoan:
oihala jaso,
jaitsi, sokak
batu...”

“Gauerako
portura
sartzen ginen:
ikusgarriak
dira”

AINTZANE GARDOKI



Eguna itsasoan eman ondoren, gaua portuan egiten zuten.

Mitartegarakai
baserri turismoa

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 13a / 105. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com



ARGAZKI PRESS

Galizia bizi izaten ari den une beltzei laguntzeko, elkartasunezko ekimena sortu da Eskoriatzan.

'Solidaridade co pobo Galego' Eskoriatzan ere

AINTZANE GARDOKI

Prestige ontziak Galiziako kostaldean eragin duen hondamendiaz berba egitea ez da berria. Galiziarri elkartasuna adierazi eta laguntza eskaintzeko asmoz, datorren asteburuan, fuel-olioak utzitakoak garbitzera joango dira herriko ikasle eta irakasle batzuk.

Joan den astean, Soziologiako eskolan, Humanitate eta Enpresako lehenengo mailako ikasleak eta haien irakasle Luxio Ugarte Galiziarra joateko aukeraren gainean berba egiten hasi ziren. Esan eta egin; izan ere, berehala ziren HUHEZIKo Praktiker Ikerketa Departamentuko kideak ideia horren gainean lanean.

Coruñaiko Unibertsitatearekin eta Muxiako Arrantzaleen Kofradiekin izan zituzten lehenengo harremanak: "Gure laguntza Galiziarra eraman gura dugu, herrien arteko elkartasuna geure ardura ere badelakoan gaude-eta. Baina itsu-itsuan joan barik, galiziarrekin harremanetan jarri ginen, ego-

erak eskatzen duen premiari erantzun gura diogu-eta", esan digu Praktiker Departamentuko kide eta antolaketa lanetan ari den Garbiñe Gonzálezek.

ABENDUAREN 20TIK 23RA

Esan bezala, Galiziarra joateko ekimena HUHEZI Fakultatean sortu da, eta Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetako ikasleei eta irakasleei ere zabalduko diete deia: "Lehenik, unibertsitateko ikasleei eta irakasleei eman gura diegu aukera, baina autobusak betetzen ez badira, edozein herritarrek izango du aukera etortzeko", esan du Gonzálezek. Datorren astean joango dira, eta hilaren 20tik 23ra izango dira lanean. "Arrazoi birengatik hartu ditugu egun horiek: alde

batetik, azterketak aste horretan amaituko dituztelako ikasleek; eta, bestetik, momentu honetan boluntario asko dagoelako Galizian. Coruñaiko lagunek esan digute geroago joanda ere lan handia dagoela egiteko. Euskal Herrira ere heldu da Prestige-k isuritako fuel-olioa, baina gurean arazo handiagoa bihurtzen ez bada, behintzat, gu Galiziarra joango gara".

SEGURUA

Galiziarra joan-etorria egiteko autobusa eta lo egiteko lekua hitzartuta dauzka HUHEZIK: "Lo egiteko lekua eta jatekoak galiziarrek emango dizkigute, baita lan egiteko materiala ere: botak eta beste. MUK eta Euskadiko Kutxak, behintzat, autobusa ordaintzen lagunduko digute. Eta norberak eraman beharko ditu lozakua, eskularruak eta txanoak". Galiziako erakundeek boluntarioei segurua egingo diete. Erakundeon arabera, eta fuelaren toxikotasuna delata, egunean bost orduz ibiliko dira lanean. Gaur, egubakoitza, amaituko da izena emateko epea. Infopraktiker@huhezi.edu helbidean eman behar da izena.

"Egoerari erantzuteko, itsu-itsuan joan barik, galiziarrekin harremanetan jarri ginen"



152 lagunek eman dute odola

Badira 13 urte Arabako Odol Bankuko Unitateko kideak odola atera eta jasotzera etortzen direla. Gurean geroago eta herritar gehiagok ematen dute, gainera, odola. Iaz, 102 lagunek eman zuten odola, eta aurten, berriz, 152k. Martitzenean, 23 lagunek eman zuten odola kultura etxean. Aurten zazpi odol emaile berri izan dira Eskoriatzan. Txalo, odol emaileei!



San Pedro auzoan, ura goitik behera

Joan den egunetako euri-jasek kalte bat baino gehiago eragin dituzte inguruetan. Herrian ez da ezer larririk gertatu, baina Deba ibaiak gainezka noiz egingo zain egon zen herritar bat baino gehiago. Joan den egunean, San Pedro auzoan, bide berria zabaldu duten leku berean, lur-jausia eragin zuen urak: Udaleko brigadak beharrezko lanak egin, eta ez zen ezer larririk izan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

BERBALDIA GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Torturaren Aurkako Taldeak berbaldia egingo du, gaztetxean, 19:00etan. Gazte Asanbladak antolatu du berbaldia.

'GABON BIDEAN' PROGRAMA

Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, haur eta gazteen-dako euskarazko liburuen eta informatikako jolas eta materialen erakusketa egingo dute, kultura etxean.



Jaki gozo eta errazak prestatzen

Amuskak antolatuta, 17 lagunek egin dute M. J. Miguelek eta Leo Herrerok eman duten Sukaldaritza ikastaroa. 16 emakumek eta gizakume bakarrak osatu dute taldea. Batzuek hainbat alditan egin dute ikastaroa, eta beste batzuk, berriz, lehenengoz animatu dira plater berriak zelan egiten diren ikastera. Duela ia 12 urte hasi ziren Sukaldaritza ikastaroa egiten: "Gabonak zirela-eta, plater bereziagoak egiten genituen lehenengo urteetan; turroia, adibidez. Orain, berriz, plater berezitxoak bai, baina garestiak ez direnak zelan egin ikasten dugu", esan digu Dorleta Lezeta Amuskako presidentek. Untxia saltsan, izozkia, alkatxofa beteak, gazta tarta eta sagar beteak egin dituzte, besteak beste./A.G.

LABUR

Udal Kiroldegiko taberna zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko lehiaketa

Kiroldegia zabaldu zutenetik hona hango taberna itxita egon da. Orain, berriz, Udalak, lehiaketa bitartez, tabernaren kudeaketa kontratatu gura du. Kiroldegiko taberna zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu gura duen edonor aurkez daiteke lehiaketara. Baldintzak jakiteko eta informazioa

jasotzeko, udaletxeko idazkari-tzara joan behar dute interesatuek. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, abenduaren 4an. Hurrengo 15 egunotan, hau da, hilaren 19 arte dago izena emateko aukera. Epea amaitu eta astebetera jakingo da nork kudeatuko duen taberna.

Udalak egindako azkeneko osoko bilkuran kaleen izenak finkatu zituen udalbatzak

Udalak iaz, irailaren 27an, egin zuen osoko bilkuran Eskoriatzako kale izendegian zenbait egokitzapen eta aldaketa egitea proposatu zuen. Eta hilabete izan zuten herritarrek aldaketak eta iradokizunak egiteko. Hala, azkeneko osoko bilkuran kaleen izendegia finkatu zuen udalbatzak: Santa

Ana auzotik beharrean, Zarautarratik Ibarraundiko zubiraino Gaztañadui kalea deituko da; Ibarraundi eta Okina baserriak Intxaurtxueta izango dira; eta Kaminokua baserritik Aretxabaletarainoko mugarainoko bidea Torrebaso pasealekua deituko da, Bainuetxe beharrean.

ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA



Hirusta
Jateetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



EDURNE



ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA


Elektroterapia.



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

CIPRI'S PUB



Aranburuzabala 8
ESKORIATZA

Unaik eta Belokik irabazi dute aurtengo Gatzagako Pilota Txapelketa

AINTZANE GARDOKI

Zortzi bikotek hartu zuten parte aurtengo Pilota Txapelketan. Iaz ez bezala, aurten, egun bakarrean jokatu dute txapelketa. Bikoteen arteko kanporaketak egin zituzten lehenengo, eta finalurrekoak eta finala jokatu zituzten gero. Afari ederra ere egin zuten pilotariek.

Joan den barikuan, bikoteen arteko zozketa egin ondoren ekin zioten pilotariek txapelketari. "Hasieran, ligaxka egin gura genuen, baina partidu asko izango zirela-eta, kanporaketak egin genituen", esan digu Belokik, txapelketako antolatzaileak.

Hamabi tantora jokatu zituzten partiduak: "Oso partidu azkarrek eta biziak izan ziren denak. Maila ona erakutsi zuten bikoteek". Lau bikotek pasatu zuten kanporaketa: Asier-Agarre, Unai-Beloki, Jon-Aritz eta Iñusti-Agarre Goikoa bikoteek, hain justu. Ordena horretan jokatu zituzten finalurrekoak, eta Unai-Beloki eta Jon-Aritz bikoteak pasatu ziren finalera. Finalurreko partiduak 14 tantora jokatu zituzten, eta finala 22 tantora jokatu zuten lau pilotariek: "Lehenengo kanporaketa egin eta finalurrekoak jokatu aurretik, herriko gazte txoek ere jokatu zuten partidua; Ibaik eta Aitorrek 16-11 irabazi zieten Lurri eta Igorri. Partidu polita eskaini zuten mutikoeak. Kirola egiten jarraitzeko, pilota eta erraketa bana opari egin zieten",



AITOR URIZAR.

Emaitzekin pozik daude, eta datorren maiatzean, seguruenik, beste pilota txapelketa bat antolatuko dute antolatzaileek.

adierazi du Belokik.

Nahiz eta eguraldiak lagundu ez, giro polita izan zen bariku arratsaldean herrian: "Euriak eta hotzak ez zuten barkatu, baina jende ugari etorri zen frontoira. Sua ere egin genuen, giroa eta ten-

peratura apur bat berotzeko. Gazta, intxaurrak, urrak eta, Gabonei usaina hartuta, polboroiak ere jarri genituen. Jendea oso gustura egon zen", gaineratu du Belokik.

Aurten txapelketa egun bakarrean egitearekin ere pozik ager-

tu dira bai pilotariak bai antolatzaileak ere: "Iaz, hilabete bi iraun zuten txapelketak, eta azkeneko, aspertu ere egin ginen. Aurten, aldiz, oso gustura gelditu gara. Beharbada, maiatz inguruan beste txapelketa bat anto-

latuko dugu", esan du Belokik.

Pilota Txapelketa amaitu ondoren, pilotariek elkarrekin afaldu zuten elkartean: "Afari ederra eta giro polita. Eskoriatzako pilotariak harrizta zeuden herrian izan zen giroarekin".

"Partidu azkar eta biziak izan ziren denak. Maila ona erakutsi zuten bikoteek"

"Unaik eta Belokik Jonen eta Aritzen kontra jokatu zuten finala; 22-14 irabazi zuten lehenek"

"Gazta, intxaurrak, urrak eta, Gabonei usaina hartuta, polboroiak ere jarri genituen"

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

ESKORIATZA

Tfno 714345
M
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21


aroztegia
leniz

Aingerugardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak



Informazioa eta erreserbak:
943 58 50 58 eta 617 78 74 32
LEINTZ GATZAGA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



SPORTLAND FORUM SHOPS

SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE,
Garibai Etorbidea. 2-6 Gipuzkoa

1.000 eurogatik, zuk aukeratu



fordfiesta

Fiesta gasolina gama **9.000 €***-tik aurrera
Fiesta diesel gama **10.000 €***-tik aurrera



fordfocus

Focus gasolina gama **11.000 €***-tik aurrera
Focus diesel gama **12.000 €***-tik aurrera

Mila euro, hori da diferentzia. Edozelan ere, segurtasun maila bera, ABS bera eta IPS bera. Sentsazio bera gidatzerakoan, kontrol bera eta, zelan ez, plazer bera.

Goatzeko pentsatuak
irauteko eginak



Fiesta gasolina Ambiente 1.3 5 ate, 70 ZP / Fiesta TDCi Ambiente 1.4 5 ate, 68 ZP
Focus gasolina Intro 1.4 3 ate, 75 ZP / Focus Intro 1.8 TDDi 3 ate, 75 ZP

Focus gama, kontsumo ponderatua, 5'1etik 9'1 litrora/100 Km-ko. CO2 emisioak, 135etik 218 G/Km-ra.
Fiesta gama, kontsumo ponderatua, 4'4tik 6'9 litrora/100 Km-ko. CO2 emisioak, 117tik 164 G/Km-ra.

MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea z/g
ARRASATE
943 79 75 64